

1975-II-28

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1975eko otsailaren 28an, arratsaldeko laurak eta laurdenetan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, E. Erkiaga, P. Lafitte, E. Larre eta J. M. Satrustegi jaun euskaltzainak; G. Aresti, J. Fernández Setien, J. Garmendia, S. Garmendia, X. Gereño, J. Intxausti, X. Kintana, J. L. Lizundia, C. Santamaria, I. Zaitegi, A. Zatarain eta J. M. Zumalabe jaun laguntzaileak, J. San Martín idazkari dala.

J. M. Barandiaran, L. Dassance, J. Diharce, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Larzabal, J. M. Lojendio, L. Mitxelena, M. Olasagarre (A. Intza), A. Zarranz (A. Iraizoz) eta A. Zavala jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urtarrileko batzar agiria onhartu da.

Euskaltzainburuak: Aita Inazio Larrañaga Pingliang-go apezpiku jauna eta Euskaltzaindiaren laguntzailea Hodarribiako Kaputxinoen komentuan hil honen 18an hil dela jakin erazi du.

Emile Larre euskaltzain berri jaunari, batzarkideen ize-nean ongi etorria agertzen zaio lehen aldiz batzarrerera datorenez gero.

EUSKERA, XIX, 1974ko alea argitaratua dela eta batzarkideen artean zabalduko dela. Ohi baino lodiagoa ateratzeak (440 orrialde ditu) ekarri duela argitaratzearen atzerapena.

a) *Har-emanak*:

Idazkari ordezkioak, Bilboko Unibertsitateko zuzendariari Bizkaiko Institutoetako irakasle taldeak egin dioten gutunaren berri eman du, bilinguismoaren eskaria eginaz. Guri dagokigun partetik zelan itsatsi behar dugun adierazten du.

Satrustegi jaunak, urtarrilean Iruñeko Udaletxeak hartu dituen erabakien berri ematen du. Maisuak hautatzeko, baremoan, euskara ere sartua dela, eta maisutarako edo maisueri, euskal irakasle tituluagatik lau puntu gehiago emango dizkiela. Euskarari buruzkoan Euskaltzaindiaren agiria beharko dela eta maisu nazionalentzat titulua lortzeko kursilloak antolatu beharra agertzen du, ondorean esaminak egiteko.

Iruñeko Udaletxeari, bere erabaki horregatik, zorionak ematea erabaki da.

Idazkariak, Jose Antonio Agirre jaunaren asmoak eta eskaria adiarazten du. J. A. Agirre, euskal irakasle tituludunak, bere zuzendaritzapean gaztettoendako 10 tomoko enziklopedia argitaratzeko asmoa du, Ediciones Altea etxearekin, erdarazko *La gran travesía* delakoa *Munduan zehar* titulupean. Hamalau urte ingurukoentzat pentsaturik doa. Euskaltzaindiak gomendatutako idazkera arauak beteko ditu; tomo bakoitza itzultzaile batek euskaratua eta D. Amundarain jaunak testu zuzentzaile dela, eta Euskaltzaindiaren babesna nahi dute. Ondo ikusi ta onhartu da.

A. Arrue jaunak, Donostiako Udaletxeak Euskaltzaindiari laguntzeko, 150.000,- pezeta izendatzen dituela urtero emateko. Arrue jaunari bere jectioegatik eta Donostiako Udal etxeari diru-laguntzagatik eskerrak ematea erabaki da.

Hartu diren liburukak:

J. M. Martin Retana jaunak emanak, *La Gran Enciclopedia Vasca*-k argitaratuak: *I Semana de Antropología Vasca*, *II Semana de Antropología Vasca*; Duvoisin-en *Bible Saindua* (hiru tomo); J. A. Mogelen *Peru Aburka* (edición bilingüe); *Ejercicios Espirituales de S. Ignacio de Loyola* (edición bilingüe, Luis Egia Rezolak euskeratua); Baltasar de Echave-ren *Discursos de la antigüedad de la lengua cántabra* (edición facsímil); Jakin argitaldaria emanak, Begiarmen-en *Sei idazle plazara - 2*, Azurmendi, Garate, Ansola; Donostiako Librería Graphos-ek emanak, I. Goikoetxearen *Giza-soiña*, A. M. Labayenen *Teatrogintza eta Yakintza*, eta J. Azpeitiaren *Zuentzat*; Bizkaiko Aurrezki Kutxak emanak, J. Gómez Tejedor-en *El paisaje natural* eta F. Sesmero-ren *La casa de juntas de Guernica*; J. San Martinek emanak, S. Onaindiaren *Euskal Literatura - III*; Piarres Lafitte jaunak bere *Notes sur la poésie chez Bernard Gasteluçar*, "Fontes Lingvae Vasconvm" en separata; Deustuko Lasalle Ikastetxeko Zubibarrí Kultur Taldearen "Zubikoak" aldizkariaren lehen eta bigarren zenbakiak; Gasteizko Ikastolaren "Errota" aldizkariaren lehen eta bigarren zenbakiak.

Guzieri eskerrak ematea erabaki da.

b) *Goizeko bilkura bereziaren berri:*

Goizeko bilkuran 9 euskaltzain bildu dira, eta beste 9k gutunez erantzun dute, poderioak emanez. Gilen Eppherre euskaltzain zuberotarra zenaren hutsunea betetzeko proposamendu bakar bat agertu da: lehendik laguntzaile zen, Jean Louis Davant idazle zuberotarrarena, bere lanen eta merezimenduen berri emanez, eta maioriaz euskaltzain izendatua izan da.

Ikastola Hiztegiaren 14 eta 15 zerrenden oharrak aztertu ondorean onhartuak izan dira.

d) *Atarrabi apeza eta Pedro de Atarrabia:*

Aita Julian Alustizaren txostena, Atarrabi apeza eta Pedro de Atarrabia-ri buruzkoa (txosten hau urtarrileko batzarrean irakurtzekoa zen, baina denbora faltaz utzi zen hil honetarako, eta bitartean, txosten honen lehen parte "Aránzazu" aldizkarian agertu da, 1975eko otsaileko zenbakiaren 69. orrialdean). Aita Alustizak Pedro de Atarrabia frantziskotar ospetsu, pentsalari eta teologilaria, XIIIgarren mendekoa eta sortzez nafarra, bere bizitzako zertzelada batzuk ematen ditu eta Euskal Herriko mitologian agertzen den Atarrabi edo Atarrabio apezarekin egiten ditu konparaketak. Txosten hau J. M. Satrustegi jaunak irakurria izan da.

e) *Etienne Lapeyre (1840-1893):*

Piarres Lafitte jaunaren txostena, J. Haritschelhar jaunak irakurria. Joan zen mendeko Etienne Lapeyre idazlearen berrien zuzenketa osagarritzko ikerketaren frutu bezala aurkezten da. Orain arte uste zen 1930ean hila zela. Bere bizitza eta lanen xehetasunak eman ondorean, orain arteko hutsen zuzengarri, Etienne Lapeyre kalonjea "Récur" etxean hil zela 1893ko martxoaren 23an, bere 53 urteak bete gabe. Bere lan mahineko krisailua erorita aurpegia erre zitzaion eta honen ondorioz etorri zitzaion heriotza.

f) *Hazi eta hezi:*

C. Santamaria jaunak irakurri du "Hazi eta hezi" buruzko txostena. Erdarazko "educación" hitza euskaraz nola behar lukeanari buruzko saioa agertzen du. "Educar", bere etimologiaz, "bideratze"ri loturik datorrela. *Hazi*, "educar"

eta *Hazkuntza*, "educación", eta adierazpenik aski eman du eritzi honen inguruko

Bukatzean jarraitu den elkarrizketan zenbait eritzi desberdin agertu badira ere, interes handiarekin jarraitu da gaia bere funtsean.

g) *Emakumeen nazioarteko urtea delata:*

Aurreko batzarrean esana ontzat hartzen da, eta ekainaren 27an Donostiako batzarrean emakumeen urtea ospatzea onhartu da. Euskaltzain osoen batzarrean erabakiko da zer nola antolatu.

h) *Martxoko batzarra:*

Martxoko azken ostirala, Ostiral Santua delako, aurreratu beharra agertu da. Beraz, erabaki denez, urrengo batzarra martxoaren 26an izango da, asteazkenez. Larunbat Santuz, 29an, eta Arrasateko Teknik Ikastegian, B mailako irakasle titulua lortzeko etsaminak egingo dira. Etsamina hoiien aurretik bi ekinaldi egongo dira, eta hoietan irakasleak beren aztura eta irakasbideak elkarri ezagut arazteko aukera izango dute.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1975-III-26

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1975eko martxoaren 26an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, X. Diharce "Iratzeder", A. Irigoyen, P. Lafitte, L. Mitxelena eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; P. Altuna, G. Aresti, J. Berrojalbiz, X. Kintana, J. L. Lizundia, I. Sarasola, J. Zaitegi, M. Zarate eta A. Zatarain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dela.

Arrue, Dassance, Davant, Erkiaga, Larzabal, Larre eta Lojendio jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Otsaileko batzar agiria onartu da.